



**Hamar urte bete
ditu Sorginek
antolatzen duten
Urnietako
Akelarreak** / 4-5

**Giro bikaina eta
tanto zirraragarriak
Iturzaeta
memorialeko
finaletan** / 14

**Andoaingo Kaletxiki
jaietan murgilduko
da, ostegunean
hasi eta igandera
bitarte** / 15



Suaren inguruan dantzan

Axeri-dantza eta usadiozko dantza-emanaldiak, aurtengo protagonista nagusiak / 6-11



BAIETZ GABE, EZETZ DA

JAIETAN ERASO SEXISTARIK EZ!!



ANDOAINO UDALA

EZ IZAN KONPLIZE



Jendetza elkartu zen Goikoplazan, ekainaren 23an, arratsaldeko 18:00tan deitu zuten agerraldian. AIURRI

Erasoen aurrean, erantzun irmoa

Gertaera larri batek ilundu du festa Andoainen: aurreko ostiralean, txosna eremuan, eraso matxista izan zen. Gertaeraren aurrean, erantzuna irmoa eta bateratua izan da gizarte eragileen eta erakundeen aldetik

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Gizartea aztoratu duen zorigaiztoko gertaera izan zen San Juan jailetako lehen gauan, txosnagunean: eraso matxista izan zen ospakizun giroaren bueltan. Salaketa jartzeaz gain, gertaeraren berri eman eta erantzuna berehalakoa izan zen: herrikide askoren babesa jaso zuen Goikoplazan.

Herri bizitza kolokan geratu zen pandemia garaian eta, geroztik, sekulako ahalegina egin da Andoain herri bizia eta erakargarria izan dadin. Gizarte

bizitzaren adierazpen argienak jaiak dira eta herriko hamaika hitzordutan partaidetza eta giro ona azpimarratu beharrean dago. Ez dira gutxi herriaren alde lan egiten duten eragileak eta erantzuna ere tamaina beretsukoa da: ehunka dira herri bizitzaz gozatu nahi dutenak. Baina, tarteka, gertaera deitoragarriak izaten dira. Aurreko ostiralean, urrutira joan gabe.

Erasoaren aurrean erantzuna irmoa izan da. Txarrean, hori da egun hauetan atera daitekeen ondorio baikorra.

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



www.aiurri.eus

Aiurri eskuragarri:
Ebez ebeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 50 eurokoa da. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain. Tel.: 943 300 732. andoain@aiurri.eus www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.

Erredaktoreak: Xabier Lasa, Alba Cabrera Jauregi.

Maketatzailea: Maddi Trubuelo.

Kudeaketa, harpidetzak:
Garbiñe Ugartemendia. idaizkaritza@aiurri.eus

Publizitatea: Fer Irazu. publizitatea@aiurri.eus

Banatzaleak: Rocio Arias (Andoain), Axun Jauregi, Jeray Gonzalez (Urnietak).

Diseinua: Goiena / TOKIKOM.

Zorion agurrak, merkatu txikia:
diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus.
Whatsapp-a: 619 163 537.

Lege Gordailua: SS-1078/04.

ISSN: 1698-4870.

Tirada: 4.000 ale.

Inprimategia: Zeroa Multimedia.

EKOIZLEA:



ALIATUAK:



BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:



ANDOINGO UDALA



URNIETAKO UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:



Gipuzkoako Foru Aldundia
Hizkuntza Berdintasunerako Zuzendaritza

BABESLEAK:



Aiurriko harpidedunak ezinbestekoak dira.

ZIURTAGIRIA:



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa



ORAIN GIPUZKOA

Erreakzio-sorta eragin zuen jaietako eraso matxistak

Astelehenean, eguerdi aldera, aditzera eman zen San Juan jaietan emandako eraso matxista. Lehenik, Andoaingo mugimendu feministak egin zuen gertaeraren eta elkarretaratzearen deialdia eta, segidan, adierazpenak kateatu ziren. Agerraldiaren aurretik, erakundeek adierazpen bana egin zuten. Eta, Goikoplazan bertan, mugimendu feministak adierazpena irakurri zuen.

Andoaingo mugimendu feminista

Arratsalde on eta eskerrik asko hurbiltzeagatik. Ostiral gauean txosnagunean eraso matxista bat eman zen. Mugimendu feministatik gure gaitzespen irmoena adierazten dugu erasoan aurrean, eta gure elkartasun eta babes osoa helarazten diegu erasoja jasan dutenei eta haien ingurukoei. Berriro erasotu gintuzten Andoaingen. Berriro egin behar izan diogu aurre eta berriro salatu behar dugu jasaten dugun indarkeria. Txosnagunea eta herriko jai-eremuak gune seguruak izan behar dira denontzako.

Eta hau guztion ardura da. Guztion ardura da ere horrelako erasoan aurrean dugun jarrera eta ez dugu inolaz onartzen egoera lasaitzeko asmoz erasotzaileei indarkeriaz erantzuten dioten gizonen jokabiderik. Ez gaituzue salbatu behar eta inolaz ere, jipoiek ez dute egoera konpontzen, okertu baizik. Berrikusi zuen jarrerak eta hartu ardura. Ez bazarete konponbidea, arazoa zarete!

Mugimendu feministak eta jai hau antolatu duten eragileek ez ditugu eraso matxista, homofobo, arrazista, lesbofobo, transfobo, bifobo... ez eta bestelako eraso motarik onartzen! Jaiak guztiok gozatzeko antolatzen ditugu eta egoten ez dakienak ez dauka lekuri hemenean. Erasoei aurre egitearen ardura indibiduala eta kolektiboa da eta espazio aske eta seguruak lortzea guztion erantzukizuna.

Aski da! Ez Andoaingen, ez inon eraso matxistarik ez!

Antolatuta gaude eta erasotzaile eta konplize zaretenak aurrean izango gaituzue!

Indarkeria matxistei sua! Gora Autodefentsa Transfeminista!

Andoaingo Udala

Andoaingo Udalak gaitzespen irmoa adierazi nahi du gure herriko San Juan jaietan gertatu berri den eraso matxistaren aurrean. Biktimaren ingurukoei babes eta gertutasun osoa adierazi eta eman nahi diegu, eta, horretarako, haien eskura jarriko ditugu behar dituzten baliabide psikologiko eta juridikoak eta osasun eta babes arloko baliabideak, eta behar duten

informazio guztia izan dezaten bermatuko dugu.

Andoaingo Udalak, kasuaren berri izan ondoren eta –gertaerari buruzko ahalik eta ikuspegi osoena eta egiazkoena izateko helburuarekin– bildutako informazioa kontrastatu ondoren, Andoaingen gertatutako indarkeria matxista kasuen aurrean eman beharreko erantzun publiko instituzionalerako protokoloa aktibatu du.

Premiazko bilera egin da informazio guztia biltzeko eta, modu horretan, erakundearen erantzuna eta biktimari eta biktimen ingurukoei eman beharreko arreta koordinatzeko.

Azpimarratu nahi dugu indarkeria matxista giza eskubideen urraketa larria dela.

Indarkeria matxista lehen mailako arazo soziala da; indarkeria hori pairatzen duten eta indarkeria horri aurre egiten dioten emakumeen duintasunaren eta osotasun fisiko eta moralaren aurkako eraso. Indarkeria horren adierazpenak ez dira gertakari isolatuak; aitzitik, gure gizartea egituratzen duen sinesmen-sistema batean oinarritutako jokabideeta balio-sare baten parte dira. Gure gizartean erroturik dagoen sistema horren ondorioz, emakumeak gizonen mende jartzen dira eta ez zaie lekuri uzten gizartean adierazteko eta jokatzeko beste modu batzuei. Horregatik, azpimarratu nahi dugu erabat arbuatzen dugula indarkeria matxista oro.

Beraz, Andoaingo Udalak konpromisoa hartzen du lanean jarraitzeko, erakunde publiko gisa, emakumeen giza eskubideak eraginkortasunez betetzen direla bermatu ahal izateko. Halaber, Andoaingo Udalak adierazten du lanean jarraituko duela eraso matxista orori irmoki erantzunez, biktimari eta ingurukoei lehenetsunezko arreta emanez, indarkeria matxistari aurre egiteko prebentzio jarduerak eginez eta erasotzaileen inpunitate soziala saihestuz.

Horrenbestez, Andoaingo Udalak aurrera jarraituko du indarkeria matxistarik gabeko bizitzak bermatuko dituzten politikak bultzatzen.

Horregatik guztiagatik, Udalak:

- Jakinarazi nahi du Udaltzaren ordezkaritza duten alderdi politiko guztiek aringarririk gabe arbuatzen dutela Andoaingo San Joan jaietan gertatutako eraso.

UDAL ORDEZKARITZA ZABALA HURBILDU ZEN GOIKOPLAZARA

BILKURA ETA ADIERAZPENA IKUSGAI DAUDE AIURRI.EUS GUNEAN



Sua pizteko ekitaldian mugimendu feministak pankarta handia eskegi zuen kanpandorretik. AIURRI

- Bat egiten du, mugimendu feministak gaur deitutako gaitzespen ekitaldiarekin, ez Andoaingen, ez inon. Eraso matxistarik ez lelopean, eta herritar guztiak gonbidatzen ditu bertan parte hartzera, gertakari honen aurrean bere gaitzezpenean adierazteko.

Gipuzkoako Foru Aldundiak

Gipuzkoako Foru Aldundiak, adierazpen instituzional honen bidez, Andoaingen gertatutako eraso matxistaren aurrean gaitzespenik irmoena adierazi nahi du. Era berean, foru erakundeak gertutasuna eta elkartasuna adierazi dio biktimari, baita haren senideei eta gertuko pertsoneri ere.

Gipuzkoako Emakumeen aurkako Indarkeriari Aurre Egiteko Protokolo Instituzionalaren arabera, Aldundiak bat

egin du Andoaingo Udalak plazaratu duen gaitzespen adierazpenarekin.

Horrelako gertakarien jatorria gizonen eta emakumeen arteko berdintasun falta da, emakumeak mendean eta kontrolpean izan nahi dituzten jarrera eta ideia matxistetan, hain zuzen. Horregatik guztiagatik, beste behin ere, berdintasunaren aldarrikapenean jartzen dugu azpimarra. Emakumeen eta gizonen berdintasuna errespetatzea, bai eta duintasuna, sexu-askatasuna eta pertsonaren osotasun fisikoa ere, eskubide bortxaezinez dira; eskubide horien aurka egiten duten jokabideek ez dute lekuri gure gizartean. Emakume guztiek dute aisialdiaz eta gizarte-harremanez askatasun osoz gozatzeko esku-bidea, eta, horregatik, berriz ere adierazi nahi dugu indarkeria sexistarik gabeko kaleak, auzoak, udalerriak eta hiriak nahi ditugula.



Mikel Alberdi Denda Berriko lehendakariak piztu zuen sua, gaueko 22:30ak aldera. AIURRI

Ospakizuna, suaren inguruan

Urnietako ikuskizuna bakarra da, baina hiru atal nagusi ditu: Txanbolin txistulari taldearen emanaldia, Urnietako Akelarrea eta San Juan sua. Eta ezin aipatu gabe utzi laugarren elementua: urnietarrak. Ohi bezala, ehunka herrikide hurbildu baitzen ospakizunera

Jon Ander Ubeda URNIETA

San Juan bezpera hitzordu berezia da urnietarrentzat, jendetza elkartzen baita Plazido Muxika plazan. Gune estalian egin zen txistularien emanaldia eta sorginen ikuskizuna. Jarraian,

gune estalitik kanpo, dimentsio handia hartu zuen sua pizteari ekin zioten. Hilaren 23koa uda eta oporrak gainean diren seinale izaten da. Ospakizunean lanean aritu zirenei esker, urnietar askoren gogoia asetu zen.

Txanbolin

Tradizio handiko ospakizunetan ezinbestekoa da Urnietako txistularien agerpena. Aurten ere, nabarmentzekoa izan da haien partaidetza. Aipatu beharra dago, gainera, kide berriekin osatzen

ari dela taldea eta, txistuaz harrago, instrumentu gehiagoren laguntzarekin kantuak aberas-teko aukera dutela.

Akelarrea

Sorginak taldeak hamarkada bete du Akelarrea antolatzen eta, efemeridea baliatuta, adierazpena irakurri zuten. Herriaren alde, komunitatea indartzeko xede horretan, urte hauetan egindakoa balioan jarri eta eskerrak emateko aukera baliatu zuten. Bereziki, eta askoren artean, Txanbolin eta Udal langileak aintzat hartu zituzten. Eta, nola ez, hamar urteotan Akelarrean bidelagun izan dituzten lagun guztiak. Ibilbide honetan, antolaketan, pertsonen joan-etorria izan da eta hala eta guztiz ere indartsu daude. Ikustea besterik ez dago aurtengoan aktore lanetan parte hartu duen

jende kopuru handia. Mimo handiz prestatutako ikuskizuna da zeinean antzezpena, soinua eta argiteria uztartzen dituzten. Haurrak, gaztetxoak eta helduak dira protagonista. Antzezpena epikotasunez beterik dago.

San Juan sua

Urnietan ohitura da Mikel Alberdi Denda Berriko lehendakariak sua piztea. Aurten ere halaxe izan zen eta, denbora tarte txikira, sugarrak handi bilakatu ziren. Deigarria da, urtez urte, metro askotako distantziatik suari darion berotasuna norberaren gorputzean sentitzea. Askorena izan zen sentazio hori bera Plazido Muxika plazan.

Gau giroa ederra zen, suaz eta uda hasieraz gozatzen jarraitzeko. Plazakoa piztu baino lehen, inguruko baserri askotan bizi-berritu zuten ohitura zabarra.



Laguntasunari keinu egin zioten Akelarreko kideek. AIURRI



Soinua, argiteria eta aktore lanetan murgildutako herrikideak dira Urnietako Akelarrearen osagai nagusiak. AIURRI



Mehatxuen eta erasoen aurrean komunitatearen garrantzia irudikatu zuten Urnietako Akelarrean. AIURRI

Urnietako Akelarreak hamar urte



Oholtza gainean irakurri zuen adierazpena Arantxa Corbellek. AIURRI

Adierazpena Laguntasunaren aldeko mezua zabaldu zuten sorginek, Akelarrearen hamargarren urteurrena ospatzeko adierazpenean. Taldean, komunitatean herriari ekarpena egin nahi diote uda hasierako ikuskizunaren bitartez.



Harmailak goraino bete ziren astelehen gauean. AIURRI

Jendetza Harmailak txiki geratu ohi dira San Juan bezperako ikuskizunean. Eta inguruetan ere ilarak sortu ohi dira, suak eta Akelarreak pizten duten ikusminaren ondorioz. Eguraldia lagun, plazaren txoko guztietan aurki zitezkeen ikusleak.



Txistulari taldea, oholtza gainean. AIURRI

Txanbolin Gazte Festetan, Sanmieletan, San Juan bezperan... garrantzi handia du Urnietako taldeak tradizioa biziberritzeko ahaleginean. Aurreko urteetako joerari jarraituz, emanaldia egin zuten sua piztu aurretik.



Zaintza Mahaia martxan da Urnietan. UDALA

Urnietako lehen Zaintza Mahaia osatu dute

Urnietako Udalaren esanetan "ordezkaritza zabalarekin" osatu dute herriko lehen Zaintza Mahaia

Erredakzioa URNIETA

Martxan da, estreinakoz, herriko lehen Zaintza Mahaia. Izaera parte-hartzailea izango du foroak, Urnietako Udalaren esanetan, "zaintzen esparru komun bat sortzen hasteko, gure ekosistemak izango dituen printzipioak eta balioak definituz". Lehenengo aldiz, ekainaren 11n egin zuten bilkura. Hala, uda ondoren egingo dute bigarren hitzordua eta urtearen amaieran komunitate osoari irekitako saio bat aurreikusitako dute. "Urrats esanguratsua" da, Urnietako Udalaren iritziz Zaintza Mahaiaren eraketa,"

zaintza eredu pertsonalizatuago, hurbilago eta komunitatearekin konektatuago baterantz aurrera egiteko helburuarekin". Zaintza hizpide, Matia Institutuaren eta Zabalduz Kooperatibaren aholkularitzarekin, azterketa sakon bat egin zuen Urnietako Udalak: etxez etxe galdeketa bidaltzeaz gain, banakako zein taldeko elkarrizketak egin ziren. Horrez gain, herritar guztientzat bideraturiko bi saio ireki antolatu ziren, zaintzaz hausnartzeko asmoz. Horrekin guztiarekin Zainketa Planari forma eta edukia eman nahi diote.

"Ongi Etorri Baserrira!", ENBAren eskutik

Urtero bezala, beren etxeko atea irekiko dizkiote jendeari Urnietako Adarrazpi zein Eula baserriek, "Ongi Etorri Baserrira!" ekimenarekin. Egitasmoaren 10. edizio honetan, uztailaren 4ean zein 5ean izango dira bisitaldiak Gipuzkoako, Bizkaiako eta Arabako ikuiluetan, baratzetan eta landaguneetan, lehen sektorea herritarrengana gerturatzeko xedez. ENBA sindikatua da egitasmoaren sustatzailea. Aurten, Urnietan, bi ekoizlek hartuko dute parte proiektuan, uztailaren 4an: Eula baserria (sagastia eta sagardotegia) eta Adarrazpi baserria (ardiak, gazta eta mami); bazkari-dastaketa kontratatu daiteke aurrez hitz eginda.

Jeltzaleen oharra, errepide berriaren harira

Prentsa-oharra argitaratu du herriko EAJ-PNV alderdiak, ekainaren erdialdean ireki zen Lasarte-Oriaranzko errepide berria hizpide hartuta. Besteak beste, honako hau adierazi dute ohar horretan: "Zabaleta auzoko zirkulazioa eraldatu eta inguruko bizilagunen bizi-kalitatea nabarmen hobetu duen mugarria da".



Larunbat goizeko lehiaketako irudia. AIURRI

Txakurrak Landan lehiaketa

Euskal Txakurrak Landan lehiaketa egin zuten, aurreko asteburuan, Xoxokan. Goizeko 08:00etan abiatu ziren zaleak mendialdeko auzuneko belardietara, txapelketa gertutik jarraitzeko. Larunbateko hitzordua Hontza elkarateak antolatu zuen: orotara, 28 txakur izan ziren lehian, kategoria ezberdinetan banatuta. Biharamuneko txapelketaren antolaketa, berri, Txantxangorri elkaratearen ardura egin zen.



Ia 30 lehiakide izan ziren, larunbatean. AIURRI





Jon Garmendia eta Rafa Etxarri, inaugurazioan. AIURRI

Pausa txiki bat egiteko gonbita

Hernaniko Biteri kultur etxean, uztaila amaiera arte egongo da aukera Jon Garmendia idazle urnietarrak Rafa Etxarri margolariarekin batera egin duen erakusketa ikusteko: "Hitzak eta koloreak"

Alba Cabrera Jauregi HERNANI
Poemez eta margolanez eraiki dute etorkizun desiragarriarako bidea Jon Garmendia "Txuria" idazle urnietarrak eta Rafa Etxarri margolariak, "Hitzak eta koloreak" erakusketan. Pasa den asteburuan egin zuten inaugurazioa, Hernaniko Biteri kultur etxean. Bertan, bi protagonisten eskutik, obraren nondik norakoak xehetasunez ezagutzeko aukera izan zuten hitzordura hurbildutako senitarteko, lagun eta herritarrek. Uztaile arte egongo da ikusgai "abiadura handiko" jendarte-ereduaren aurrean, "geldialdi bat egiteko proposamena" luzatzen duen erakusketa.

Natura, itxurakeria eta etorkizuna

Biak ala biak dira baserrian sortuak, eta horrek badu bere-

biziko pisua obran, Etxarriren esanetan, poemek eta koloretako formek naturara gerturatze gonbita luzatzen baitute, zementua biderkatzen ari den honetan: "Erabat deskonektatu dugu hortik. Horrek ondorioak dauzka, ondorio inportanteak".

Itxurakeriatik harago, nork bere kolorea aurkitzeko bidean, natura bidelaguna delakoan da egilea: "Naturarentzat denok gara berdinak, baina ezberdinak, aldi berean, autentikoak, eskusiboak". Uniformitatetik ihesi, horrela, askotariko forma zo-

**INOIZ ARGITARATUAK
IZAN EZ DIREN
POEMAK
ERE BADIRA
ERAKUSKETAN**

rrotzeko zein biribileko irudiak dituzte lagun Jon Garmendiaren hitzek.


Denboraren joanaz ere egin dute hausnarketa, arnas estuka bizi den jendartearen ipinita begirada: "Ezinbestekoa da gelditzea eta pentsatzea zer ari garen bizitzen", azaldu zuen inaugurazioan margolariak. Horrekin lotuta, kezka agertzen dira, maiz, artistaren ustez, distopiarantz jotzeko joerak, etorkizun ezaren ideia, iluntasuna, erresilientzia... "Bada horren aurrean mundu zoragarri bat, mundu eder bat, kolorez bustita".

Etxean bezala

Poema berriak sortzeaz gainera, aspalditik kaxoian gordeta zituen hitzei hautsa kendu die Jon Garmendiak, erakusketan aurkezteko asmoz. Hala, Her-



Uztailaren 29ra arte egongo da ikusgai erakusketa. AIURRI



Poemek eta margolanek osatzen dute erakusketa. AIURRI

nani lur hartzeko toki aproposa delakoan da idazlea, herriarekin duen lotura estua kontuan hartuta: "Herri indartsua da, borrokalaria, tradizioa gordetzen duena, kulturari bere tokia egiten diona... Gauza asko da niretzat Hernani eta bihotzean eduki dut". Hala, etxe sentitzen du, urte luzez zapaldu ezin izan duen herria eta, hain zuzen, haustura horri ere tokia egin dio erakusketako hitzetan: "Ezin dut ukatu, nire barruan dago. Buelta asko ematen nizkion horri: egunen batean etxera itzuliko banaiz,

**HITZA ETA KOLOREA
NAHASTUTA,
ASKOTARIKO GAIEN
HAUSNARKETA EGIN
DUTE**

nola itzuli? Nola itzultzen da inoiz joan ez dena? Ez zara joaten, gorputza han dagoelako, baina burua hemen. Horrekin bizitzen ikasten duzu". Hori esan bitartean, gogoan izan zituen, irekiera-ekitaldian, Iparraldeko lagunak, harreman estuak sortu baititu bertan, haren bizipenez, ateak zabalik jaso baitute beti: "Hor ikusten duzu handia dela herri batek duen balore emozionala".

Kolorez beteriko hitzak josi ditu idazleak: giza izaeraren aldarria, sentimenduak, emozioak, zalantzak, determinazioak, hausnarketak, pentsamenduak, izaera eta egunerokoan zeharkatzen dituzten beste makina bat geziz osatu ditu poemak Garmendiak: "Ondo edo ez, ez dakit, baina nik idazten dakit, esaten, eta hortara nator".



Manuel Larramendi andoaindarrari eta Juan Ignazio Iztueta zaldibiarri esker jaso du Andoain herriak axerien dantzaren aintzinasunaren berri. Aurten, keinu berezia egin nahi izan zuten axeriek. AIURRI

Axerien eta bero saparen urtea

Udaren etorrerarekin termometroak gora egin du egunotan eta jaietan beroa nagusitu da. Sargori zen egun gehienetan. San Juan egunez, gainera, ekaitza lehertu zen erromeria ospatzen ari zen bitartean

Erredakzioa ANDOAIN

Eguraldia ezinbesteko aldagaia da jaietan, egitaraua baldintzatzeraino. San Juan eguneko zezensuzkoa ez zen egin, ordu horretan sekulakoa baitzen ekai-

tza elektrikoa. Hori da bertan behera geratu den ekitaldi bakarra, baina ezin alde batera utzi gehiegizko beroak duen eragina. Axeri Dantzan, esaterako. Sekulako beroa pasa zuten,

bereziki, eguerdiko 12:00tako dantza-emanaldian. Beraz, beroagatik gogoan hartuko ditugu 2025eko Sanjuanak, baina bada beste bereizgarria: Axerien efemeride bikoitza.



Bakartxo eta Klaap konpainien emanaldietara jendetza hurbildu zen. AIURRI

25 urte bete dira emakumezkoak parte hartzen hasi zirenetik eta 50 dantza berreskuratu zutenetik. Urteurrena zelako edo, aurten jendetzak eman du izena.

Jaiak, oro har, bikainak izan dira eta jendetza ibili da kaleetan. Ezin aipatu gabe utzi ostiral gaueko eraso matxista. Horrek ilundu du jaia, eta aztoratu herria.



Urki dantza taldeko kideak, txistulariekin batera, Kontzejupean. Bizkainoa eta Otsagiko dantzak bikain dantzatu zituzten. AIURRI


andoa**INDARRA**
euskaraz



Ander Setien, Ianire Huizi, Juantxo Arregi, Izaskun Beraza eta Xato Irazu pregoiaren irakurketan. AIURRI



Axeriak Urigaindik udaletxera hurbildu ziren, Olagain Udal txistulari elkarteak lagunduta. AIURRI



Ekainaren 21ean Mugaz Udal Musika Eskolako ikasleen kontzertua izan zen Goikoplazan. AIURRI



Jaien hasieran ekintza ikusgarria egin zuten hainbat emakumek. AIURRI

Palestinako herriari keinu ugari

Ekialde Hurbilean ez da giro eta Palestinako herria pairatzen ari den genozidioak hainbat herrikideren erreakzioa piztu du. Aurtengo jaietan Palestinarekiko keinuak ugari izan dira. Lehen egunetik hasita, emakume talde batek ekintza ikusgarria egin zuen eta udaletxe ondoko belardian hildako haurrak irudikatzen dituzten panpinak utzi zituzten. Pregoilariek ere aintzat hartu zuten Palestina eta, bestalde, hainbat ekimen izan da herrialde hartako biztanleei laguntzeko: igande arratsaldean, talo-jate solidarioa egin zuten; astelehenean, Azokan, jatorri anitza duen emakume taldeak janari-postua ipini zuen.

IPUINGIRO

2025

3 ASTEARTE · 3 IPUIN

UZTAILAK 1 · 18:30
Sorabilla
Zorte txarreko otsoak
Maite Franko
[3 urtetik aurrera]

UZTAILAK 8 · 19:30
Plazaola kalea, 2
Memoriaren ibaia komikiaz
Mattin eta Juan Luis Zabala
[helduentzat]

UZTAILAK 22 · 18:30
Leizaur parkea
Kamishi-Jai
Intujai Teatro
[3 urtetik aurrera]







Auzo Batzordeetako kideen lanari esker egiten da txuleta-jatea. AIURRI



Ugartemendia gai-jartzailea eta Peritz, Iguaran, Alkaiza, Uria, Mendiluze eta Illarregi bertsolariak. AIURRI



Kapela ikusgarriak ikus zitezkeen txuleta-jatean. AIURRI



Xake joklariak Goikoplazan, San Juan jaietan antolatzen duten sariketan. AIURRI



Nerea Fernandez gogoan ospatzen da kros mistoa. AIURRI



Eñaut Urkaregi Gipuzkoako Itzuliko garailea izan da. Nola, gainera! Gipuzkoako Itzulian lautik lau etapa irabazi zituen. AIURRI



Kros mistoko podiuma: Elena Beristain-Axier Aranburu (20:26), Jon Imaz-Irati Velasco (22:03) eta Aimar Sukunza-Maddi Sukunza (23:30). AIURRI



Urrietako Lizeagatarrak eta Labakatarrak, kros mistoko lehen bi sailkatuak. AIURRI



Andoaingo Txirrindulari Eskolako lantaldeak antolatu ohi du bizikleta festa. AIURRI



Zumeatarrako Koldo Velasco garaile izan zen II. Bertxin Xtrem lasterketan. AIURRI



San Juan jaiei ekin aurretik, Kale Nagusiko harategian ikusgai jarri zituzten Andoaingo erraldoi eta buruhandien buztinezko figurak. Argazkian, erakusleihoaren aurrean, Mari Gutierrez egilea eta Andoni Etxeberria harakina. AIURRI



Lebiton konpartsako kideek eskertza adierazi zieten Mari Gutierrez eta Andoni Etxeberriari. AIURRI



Andoaingo Erraldoiak, jaiaren hasierako ekitaldian. AIURRI



Saio nagusia plazan egin zuten. AIURRI



Partaidetza handia izan da aurtengo Axeri Dantzan. AIURRI



Bakartxo eta Joseba dantza konpainiako taldeetako bat, dantza-saio bat amaitu berrian. AIURRI



Nerea Hernandez irabazle izan den lanaren alboan. AIURRI



Nerea Uralde, Sara Rodriguez eta Nerea Hernandez, Marta Lasarekin batera. AIURRI



Klaap dantza eskolako ikasle talde baten saioa, Goikoplazako oholdza gainean. AIURRI



Bertxin adinekoren elkartean ere hainbat hitzordu antolatu dituzte jaietan. AIURRI

URRIZAREN AZKEN PARTIDA

EKAINAK 28, LARUNBATA.
17:00etan.
GALARRETA JAI ALAI

SARRERAK: ORIAMENDI.EUS

LEHEN PARTIDA

**ANSA II · JUANENEA VS.
EZKURRA II · LARRAÑAGA**

BIGARREN PARTIDA

**URRIZA · AZPIROZ VS.
ALDABE · BARRENETXEA IV**



Txapelketa amaitu berrian argazkia atera zuten Sorabilako pilotalekuan. AIURRI

Ikuskizuna, Sorabillan

Giro berezia, frontoi berezian. Esaldi horrekin laburbildu daiteke Sorabillan jokatzeko den Iturzaeta memorialeko txapelketa herrikoia da eta jokoan den asteetan dozenaka pilotazale eta herrikide hurbiltzen dira hara

Xabier Lasa ANDOAIN

Ekainaren 15ean jokatzekoak ziren Iturzaeta memorialeko pala txapelketako finalak baina eguraldi kontuak tarteko astebete atzeratu ziren. Beraz, Sanjuanak bete-betean zirela, aurreko igandean Sorabillarako frontoi berezira hurbildu ziren pilotazaleak eta memorialeko gogoko duten herrikideak. Izan ere, txapelketak irauten duen denbora-tartean oso giro berezia sortzen da bertan. Hala, ikusle ugari eta tanto politak ikusi ziren hiru partidatan. Finalista guztiek txalo zaparrada jaso zuten.



Julen Loidi-Ander Loidi 25-11 Iñigo Irisarri-Mikel Arberas. AIURRI



Iñaki Lopez de Munain-Ibai Mikel 25-14 Sergio Garcia-Aitor Amondarain. AIURRI



Edurne Osa-Amaia Gonzalez 25-15 Aitziber Zipitria-Irati Amondarain. AIURRI

"Barruan zirrara ari naiz sentitzen egunotan"

LULA GARCIA BOLADO KANDIDA, AURTENGO KALETXIKIKO JAIETAN
Kandidaren kapa eta onddo-kapela jantzi, eta makila eskuetan duela ibiliko da ostiraletik igandera bitarte, ekitaldiz ekitaldi

Xabier Lasa ANDOAIN
Nola hartu zenuen Kandida izateko egin zizuten proposamena?
Pozez! Hori bai, errespetua pit-tin bat eragingo dit eginkizunak, guztien begiradapean jartzen baitzara. Alde horretatik, ez dakit beldur eszenikoa edo zer den, baina barruan zirrara txiki bat sentitzen ari naiz egunotan. Ohorea da proposatu didatena, eta saiaturko naiz ondo betetzen figurari dagozkion ardurak, eta aldi berean, festez gozatzen.

Zein ekitaldirekin gozatuko duzu bereziki?
Kandidari egokitzen zaizkion ekitaldiekin ez ezik (Txikitxuekin etorrera, Soka Dantza, bazkaria, zapi berde-beltza gordetzeko azken ekitaldia...), beste zenbaitekin ere saiaturko naiz ondo pasatzen; hala nola, bakarriketen saioarekin, Nemux Djk gauean jartzen duen giroarekin...

Nolanahi ere, gauza batekin daukat pena galanta: igandean, I. Paella Lehiaketan ezin parte hartu! Izena emana naukan, eta hor non etorri zitzaizkidan Kandidaren proposamenarekin.
Zalantzatan ibili zinela orduan, proposamenari baietz esateko?
Ez pentsa! Bi arrazoiengatik esango nuke animatu naizela. Batetik, nahiz eta Kaletxikin jaioa ez izan, bertakoa sentitzen naizelako erabat. Eta, bestetik, feminista sentitzen naizen alde-tik, ikusten dudalako emakumeek arlo publikoan dagokigun tokia hartzen joan behar dugula, modurik naturalenean eta alaienean.
Inguruan ezer aipatu al dizute...
Familiar, senarra eta bi alabak ez dira hainbeste harritu, igual ondo ezagutzen dutelako nire izakera festazale eta baikorra; alaba batek zera esan zidan, jakina zela, urte batean ez bazen bestean izendatuko nindutela... Euskaltegiko eta yoga taldeko kideak gehiago harritu dira, erronkari baietz esan izanagatik.



Lula Garcia Bolado izango da Kandida, aurtengo Kaletxikiko jaietan. AIURRI

Egia esan, Kandida izango zara pentsatze hutsak, dardara eragiten dio jende askori, izan lotsa, izan beldurra... eta normala izan daiteke. Kaletxikitarren sentimenduak bultzatu nau pausoa ematera, beharbada.
Azalduiguzu, mesedez, nola bizi duzuen sentimendu hori.
Hernaniarra naiz, eta hango San Juanetan Andoaingo mutikoa ezagutu nuen. Horrek ekarri zuen Kaletxikin bizitzaren jartzea geroztik, orain 33 bat urte. Kaletxikin bizi naizenez geroztik, gogoko dut esatea, bizitzera Andoaainera ez, baizik eta Kaletxikira etorri nintzela. Hemengo auzotarrek harrera beroa egin zidaten aurreneko egunetik, eta hori ez da ahaztekoa. Familia baten antzerakoa izan da, beti, kaletxikitarren bizimodua, nik ezagutu dudana behintzat. Auzoan oraindik ez da galdu balkoitik balkoira mintza-

tzeko ohitura sana; hori bada zerbaiten seinale.
Hain zuzen, pregoian, besteak beste, auzoan berehala ezagutu nituen eta jada gure artean ez dauden bizilagun maitagarri haiek nahi nituzke aipatu.
Pregoa aipatu duzu. Zer edo zer aurreratzetik bai?
Aipatu ditudan pertsona horiez gain, mezu baikorra nahi nuke zabaldu. Egia da penaz ari gara ikusten auzoko komertzioak nola doazen ixten; baserritarren kooperatibak ere, bide horretatik doala esanez oharra jarri du egunotan. Hori da errealitatea, saltoki handiak, Amazon, online erosketak... ari direla nagusitzen gure bizitzan. Baina ikuspegi itxaropentsua nahi nuke transmititu, alegia guztiok ere badaukagula gaitasuna egoera berriei aurre egiteko eta moldatzeko.

KALETXIKIKO JAIK

EKAINAK 26

OSTEGUNA

19:00 Bertso saioa Berrozpeko kaperan: Jon Mendiluze, Andoni Rekondo, Nerea Elustondo, Aroa Arrizubieta, Maialen Lujanbio, Andoni Egaña. Gaijartzailea: Xabier Ariznabarreta.

20:30 Txosna irekiera eta pintxopotea.

EKAINAK 27

OSTIRALA

19:00 Kandida eta bere txikitxuei ongietorria.

20:30 Bokatafaria.

21:00 Bakarriketak: Richard Salamanca, Dario Mares eta Pedro Llamas.

23:00 Kontzertua: Txapela Brava.

EKAINAK 28

LARUNBATA

09:00 Plater tiroketa Oiartzungo Arkalen.

09:00-11:00 Arrantza txapelketa Olazar parkean.

10:30 Eskupilota topaketa Goikoplazan. Topaketa amaitzeko denok txokotara!

12:00 Sagardo txapelketa: Mizpiradi, Gaztañaga, Eula, Lizeaga, Petritegi, Irigoien, Alorrene, Akarregi, Itsasburu, Altzueta, Urdaira eta Izeta.

12:00 eta 16:30 Haur parkea.

18:30 Haur danborrada.

19:00 Danborrada nagusia.

19:30 Zumbalokura.

21:30 afaria ontzan.

23:30-01:30 Berbena: NemuxDj's. Tangoak, pasodobleak eta rantxerak.

01:30 NEMUX Dj's Diskofesta.

EKAINAK 29

SAN PEDRO EGUNA IGANDEA

10:00 Diana.

11:00 Meza Berrozpeko kaperan.

12:00 Soka-dantza.

12:30 La Vermutera kalejira musikatua, Popeye txarangaren eskutik Elizondo tabernan hasi eta Kaletxikiraino.

13:15 Vermu dantzaldia Popeye txarangaren eskutik.

14:15 Kaletxikitarren bazkari herrikoa. Lehen paella txapelketa eta bingoa.

17:15 Kuadrillen arteko jokoak.

17:30 Popeye txarangaren kalejira.

19:00 Sardin jatea eta Alaiki taldea. Dantzaldian Kandida eta txikitxuek zapi berde beltza gordeko dute.



Sagardo dastaketa, iaz. AIURRI

Bideo-sorta zabala Aiurri.eus gunean



AIURRI.EUS
ALBISTEAK, ARGAZKIAK, BIDEOAK, AGENDA

